

# TALDEAREN

## IZENA:

### DÉJÀ VU

#### ENPRESAK EGIN BEHARREKO INBERTSIOAK. ZENBAT BALIO DUEN GAUZA BAKOITZAK.

##### Materialak:

- **Papera:** 50€ (hilabete bakoitzean 20 pakete handi, pakete bakoitza 2'5€)
- **Boligrafoak:** 50€ (hilabete bakoitzean 500 boligrafo ikasleei emateko, publizitatearekin)
- **Liburuak:** 500€ (hilabete bakoitzean 40 liburu berri, ikasle berrientzat edo graduz igo direnentzat, liburu bakoitza 12'5€)
- **Mahaiak:** 1200€ (30 mahai, bakoitza 40€)
- **Arbelak:** 200€ (lau arbela, bakoitza 50€)
- **Zakarrontziak:** 100€ (zortzi zakarrontzi, bakoitza 12'5€)

Gailu elektronikoak (Guztira: 30000€ aldi batean)

- **Ordenagailuak:** 15000€ (30 ordenagailu, bakoitza 500€)
- **iPad-ak:** 7000€ (30 iPad, bakoitza 233'34€)
- **Pantaila eta arbela digitalak:** 8000€ (4 arbela digitalak, bakoitza 2000€)



**Gaizkaren** inbertsioa ez da oso handirik izango kontuan izanda atzerritatik datorrela eta ez dauka diru askorik baina gutxienez zerbait proposatzen du: 2000€-ko inbertsioa egitea eta 50000€ eskatzea bankuari. Bankuari diru kantitate hori eskatuz gero ez ditu interesak ordainduko, bankuarekin negoziatu duelako. Horregatik 70000€-ko inbertsioa egingo du. Bere irabazia hilabete bakoitzean lortutakoaren %25'33-arekin geratuko da.

**Ainhizeren** inbertsioa 2500€-koa izango da, eta bankuan 40000€ eskatu ahal ditu. Bere kasuan bankuan eskatutako diru kantitate hori, ez ditu interesak edukiko, zeren dena ordainduta dauka, eta bankuarekin harreman onak ditu. Bere guztizko inbertsioa 42500€-koa izango da. Horregatik, hilabete bakoitzean lortutakoaren %15'38-arekin geratuko da.

**Martaren** inbertsioa txikiagoa izango da, irakasle berria izango delako, eta bere ikasketak duela gutxi amaitu dituenek, 1800€ inbertituko ditu, eta 18000€ bankuari eskatu dezake. Gainera, bankuari ez dio interes kantitate handirik ordaindu behar, eta guztira 19800€ inbertituko du. Horregatik, hilabete bakoitzean lortutakoaren %7'16-arekin geratuko da.

**Jonen** inbertsioa 1500€-koa izango da, zeren eta Martaren baldintza berdinetan dago (ikasketak duela gutxi amaituta). Horregatik, bankuari 40000€ eskatu ahal dio, interes kantitate ertainarekin. Horregatik 41500€-ko inbertsioa egingo du eta hilabete bakoitzean lortutakoaren %14'13-arekin geratuko da.

#### **INBERTSIO GUZTIAK:**

**Xabi: 105000€ (%38)**

**Gaizka: 70000€ (%25'33)**

**Ainhize: 42500€ (%15'38)**

**Marta: 19800€ (%7'16)**

**Jon: 41500€ (%14'13)**

**GUZTIRA: 276300€**

## **PUBLIZITATEA ETA BEZEROEKIN HARREMANAK**

**Hainbat modutan lor daiteke enpresa bat ezagutzera emateko.**

- **Edozein lekutan (faroletan, edozein dendako kristalean, kaleetan...) kartelak jartzea. Oso erakargarria behar da horrela jendea irakurtzen dituelako.**
- **Ordenagailuaren bitartez: INSTAGRAM, FACEBOOK...**
- **Iragarkiak egin ditzakegu, internetean agertzeko.**
- **Banandutako materialean publizitatea jartzean.**